



ETXE BITAN BIZI NAIZ, ETA ZER?

MIREN AGUR MEABE

Informazio orokorra Biografia Bibliografia

Sara, liburu honetako pertsonaia, etxe bitan bizi da orain. Gehienetan amarekin eta batzuetan aitarekin. Bietan dauka, ordea, bere tokia, bietan bere txokoa, eta asko maite dute bietan. Lehen, etxe bakar batean bizi zen, aita eta ama ere etxe bakar batean bizi zirelako. Baina gurasoak banandu zirenetik aita etxe batean bizi da eta ama bestean; Sara, berriz, bietan. Gurasoak apartatu zirenean, Sara kili-kolo ibili zen, erabat galduta, bere ordu arteko mundua guztiz aldatu zelako. Baina orain egoera berrira ongi moldatu da, gurasoak banandu arren, ondo moldatzen direlako euren artean, eta Sarak badakielako bien etxean duela bere tokia, eta bien etxean duela maitasuna. **Miren Agur Meabek** maitasunez eta sentsibillitate handiz hurbildu da gaur egun etxe askotan bizi den auzi honetara: gurasoen banaketa eta horrek haurrei eragiten dizkien nahasteak eta arazoak. Ikuspegi baikorretik begiratzen dio auziari, fintasunez beti, gurasoen banaketaren eta horren ondorioen aurklak eta infrentzuak agerian jarritz. Alpatzekoak dira Jokin Mitxelenaren marrazkien bizitasuna eta dotoretasuna. Testua edertasunez girotzen jakin du Jokinek.



20. Non bizi da orain Sara?

.....

.....

21. Zergatik ibili zen Sara kili-kolo?

- A. Bere mundua guztiz aldatu zelako.
- B. Gurasoak bi etxetan bizi zirelako.
- C. Bi etxetan maitasuna duelako.
- D. Gurasoak ondo moldatzen direlako.

22. Baina orain Sara...

- A. egoera berrira ondo moldatu da.
- B. erabat galduta dabil.
- C. maitasunik gabe gelditu da.
- D. gehienetan aitarekin egoten da.

23. Miren Agur Meabe...

- A. liburuko marrazkien egilea da.
- B. Sararen ama da.
- C. Jokin Mitxelenaren bikotea da.
- D. liburuaren egilea da.

24. Idatzi 1etik 3ra dagokion zenbakia, zuzenak direnak lotzeko.

Zenbakia

- | | |
|---------------------|--|
| Sararen gurasoak... | (1) ...gurasoak ondo moldatzen direlako. |
| Sarak... | (2) ...bereizita daude. |
| Sara ondo dago... | (3) ...bi etxeetan du tokia eta maitasuna. |

25. Non aurkitu dugu testu hau?

- A. Egunkari batean.
- B. Aldizkari batean.
- C. Liburu batean.
- D. Interneten.